

Getxo >MEETING<



Azaroak 16

Sare sozialetako zure argitalpenen egutegirako ideiak

Gomendagarria da sare sozialetan edukia maiz sortzea. Gustura egin dezakezu, horretarako gogoia duzunean. Baina, nola mantendu ahal da aldizkakotasuna epe luzean?

Berrikus ditzagun azaroaren 16an egindako ariketak eta parteka ditzagun aparteko gako batzuk:

Ariketak:

-Pentsatu eta idatzi: Identifikatu zure xede publikoa. Nori hitz egiten diozu. Zer interesatzen zaio. Nolakoa da pertsona hori. Bere interesak/kezkak/zaletasunak.

-Egin zerrenda bat zure gaiari lotutako pertsona horri interesatu ahal zaizkion gaiekin. Arrakasta izan duten kasuak, zure lanaren prozesua ikustarazi, ekitaldietara

Ekonomia-Sustapena / Promoción económica

Getxo Elkartegia, Ogoño 1, 48930 Getxo (Bizkaia) 944660140

getxolan@getxo.eus • www.getxo.eus/promocion-economica

Jarrai gaitzazu: / Síguenos en:



bertaratzea... ziur aski, proposamen gehiago etorriko zaizkizu burura. Garrantzitsua da zerrenda luzatzea.

-Zure xede bezeroek izango dituzten beharretara aurreratu ahal zara ere. Adibidez, Getxon hotel bat badaukazu eta zure xede bezero gehienek interneten “natura” eta/edo “kultura” bezalakoak bilatzen badituzte, zuk “Getxon asteburuan egitekoak”, “Bizkaiko kostaldeko planak”, “Bilbon ikustekoak” edota antzekoak idatzi ahal dituzu. Izan daiteke pertsona hori horretan pentsatzen egotea baina oraindik hotelik ez izatea. Interneten informazio orokorragoa bilatuko du eta zure hotela aurkituko du argitalpen horren bidez. Zugana iritsiko da zer nahi duen jakin baino lehen ere. Orain pentsa ezazu, nola aplika dezakezu hori zure negozioan?

-Urteko erritmoa: Pentsa ezazu 2024ko egutegian: Zeintzuk dira data garrantzitsuak: Zeintzuk dira unerik onenak ideiaia zehatzei buruz hitz egiteko? Urtarrilean asmoak dira nagusi eta maiatzean jendeak udako oporrak antolatzen ditu. Beraz, zelan balia ditzakezu une horiek saldu nahi duzuna aditzera emateko? Nazioarteko egunak ere gogoan badituzu <https://www.diainternacionalde.com> edota zura negozioari lotutako mugarrak, hilero errazagoa izango da zure edukia argi izatea.

-Pentsa ezazu argitaratzeko egutegi bat. Marketin digitalean adituek gomendatzen dutenez, hilabete osoko argitalpenetan pentsatzea komeni da, sukaldari batek bere menuekin bezala. Beste motatako argitalpenak, askotariko edukiarekin. Horretarako egokia da alde aurretik antolatzea: Zenbatero argitaratuko dut edukia? Astean behin? Bitan? Izan zaitez errealista eta ez ezarri zure buruari bete ezin izango duen mugarik.

-Idatzi hainbat argitalpen aldi berean eta programatu denboran, kontzentrazioa eta inspirazioa errazten ditu. Errazagoa da, behin idazten hasten zarenean, energia hori baliatzea lana aurrera ateratzeko. Bestela, egunerokotasunak itoko zaitu.

-Laguntza bilatu adimen artifizialean, baina neurriarekin. Chat GPTren doako bertsioa erabiltzen baduzu, “XXxi buruzko negozio bateko sare sozialetan argitaratzeko ideiak” aurkituko dituzu. Agian oso aukera argiak izango dira, baina izan daiteke bestela zuri halakorik ez bururatzea.

Agian, estrategia edo plan bat prestatzen edota sare sozialak kudeatzen laguntzen dizun marketin digitaleko enpresa eta/edo langile autonomo profesional bat kontratatu beharko duzu. Zuk egiten baduzu, aurea hartu eta irabazi egingo duzu. Animo! Ikasketa prozesua da.

Ekonomia-Sustapena / Promoción económica

Getxo Elkartegia, Ogoño 1, 48930 Getxo (Bizkaia) 944660140

getxolan@getxo.eus • www.getxo.eus/promocion-economica



Jarrai gaitzazu: / Síguenos en: